

EUSKARA IKASTAROAK

2019ko UDA

ESKOLA-ESKAERAK BIDERATZEKO JARRAIBIDEAK

www.ivap.euskadi.eus

IVAPekin HIZKUNTZA PRESTAKUNTZARI BURUZKO HITZARMENA¹DUTEN ERAKUNDEEI ZUZENDUA

¹ IVAPekin lankidetzaz hitzarmena honako arau honetan jasotzen da: 2005eko azaroaren 30eko AGINDUA, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena. EHAA: 2005-12-19, 239 zk.

UDAKO IKASTAROAK 2019 (uztaila / abuztua / iraila)

1.- Udako euskara ikastaroen eskaintza.

Udako ikastaroen deialdi honetan eskaintzen den hizkuntza-prestakuntza IVAPek finantzatuko du horretarako duen aurrekontuaren bidez. Aurrekontua nahikoa ez balitz, IVAPek 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren 3. artikuluan aurreikusitako lehentasun irizpideak jarraituko ditu.

2.- Nork eska dezake udako ikastaroa?

IVAPekin hizkuntza-prestakuntzarako lankidetzeta hitzarmena sinatuta duten herri-administrazioetako langileek eskatu ahal dituzte udako ikastaroak.

Udako ikastaro bat eskatu ahal izateko, aldezturik IVAPeko deialdien bidez ikastaroren bat egina izan behar du interesdunak eta, beraz, ikasprozesua hasia.

3.- Udako ikastaroek bete beharreko baldintzak.

- Ikastaroak HABEk homologatuak izan behar dira.
- Euskaltegi publiko edo pribatu homologatuek eman behar dituzte.
- Gutxienez **80 ordukoak** izan behar dute.
- Autoikaskuntza bidezko ikastarorik ez da onartuko.
- Ez da 4.HE prestatzeko ikastarorik eskaintzen.

4.- Eskaera egiteko epea.

Baimendutako eskaerak IVAPen aurkezteko epea honakoa da: **maiatzaren 14tik ekainaren 7ra**

5.- Eskabideak egiteko prozedura.

Interesatu bakoitzak, gehienez ere, hiru ikastaro eska ditzake.

Eskaera-orriak helbide elektroniko honetan egongo dira eskuragarri:

www.ivap.euskadi.eus

(euskara >euskara ikastaroak >udako ikastaroak>izena emateko inprimakia)

Erakunde bakoitzak IVAPera bidali behar ditu baimendutako bere langileen eskaera-orriak, hurrengo helbide honetara: Donostia-San Sebastián kalea 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

6.- Aldi baterako langileak.

Aldi baterako langileek ikastaroak dirauen bitartean bere erakundearekin lan-hitzarmena dutela egiaztatu beharko dute.

Lan-hitzarmenen iraupena egiaztatzea erakundearen ardura izango da; erakundeak onartzen dituen eskaerek, beraz, baldintza hori betetzen dutela ulertuko du IVAPek.

7.- Ordu-kreditua udako ikastaroetan.

2005eko azaroaren 30eko Aginduari jarraiki, jarraibide hauetara biltzen diren eskariak ordu-kredituen sistema izango dute ezarria.

Agindu horren 6. artikulua arabera, euskara ikastaroa hasi ahal izateko, beharrezkoa izango da ordu-kredituaren saldoa aldekoa izatea ikasturtearen hasieran.

IVAPek modu honetan egingo du ordu-kredituaren kontrola udako ikastaroei begira:

- 2018/19 ikasturtea urrian hasi zuten ikasleei ikasturtea hasi aurretik aplikatu zitzaizen ordu-kredituaren kontrola; beraz, udako deialdian ez zaie berriro aplikatuko. Ondorioz, ikasturtea urrian hasi zuten ikasleek udako deialdian parte hartu ahal izango dute, nahiz eta udako eskaera egiten dutenean ordu-kreditua negatiboa izan. Edozelan ere, udako ikastaroetan emandako orduak ordu-kreditutik kenduko dira, ikasturtean zehar emandako gainerakoak bezalaxe.

- 2018/19 ikasturtea otsailean hasi zuten ikasleei otsaileko ikastaroa hasi baino lehen aplikatu zitzaizen ordu-kredituaren kontrola; beraz, udako deialdian ez zaie berriro aplikatuko. Ondorioz, ikasturtea otsailean hasi zuten ikasleek udako deialdian parte hartu ahal izango dute, nahiz eta udako eskaera egiten dutenean ordu-kreditua negatiboa izan. Edozelan ere, udako ikastaroetan emandako orduak ordu-kreditutik kenduko dira, ikasturtean zehar emandako gainerakoak bezalaxe.

- Azkenik, 2018/2019 ikasturtea udan hasiko duten ikasleei eskaera egin orduko aplikatuko zaie ordu-kredituaren kontrola, eta saldo negatiboa dutenak ezin izango dira eskolan hasi. Hau da, ikasle horiek udako ikastaroa egin ahal izateko, aldeko saldoa izan beharko dute; bestela, IVAPek bazter utziko du eskaera. Aurreko kasuetan bezala, udako ikastaroetan emandako orduak ordu-kreditutik kenduko zaizkie.

8.- Udako ikastaroen antolamendua.

- Baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak ukatu egingo ditu IVAPek, eta erakundeei ukapenaren berri emango die, arrazoiak azalduz.
- Baldintzak betetzen dituzten eskaeren kasuan, IVAPek matrikula orriak bidaliko ditu erakundeetara, interesatuei banatzeko. Interesatuak eurak matrikulatuko dira aukeratutako ikastaroan. Horretarako, matrikula orria aurkeztu behar dute euskaltegian.

- Langilea inon matrikulatzen ez bada, ahalik eta lasterren itzuli behar du matrikula orria IVAPera.

9.- Matrikularen ordainketa.

IVAPek hartuko du bere gain ikastaroen matrikularen kostua. Barnetegien kasuan, baita ostatua eta mantenua ere. Ordea, IVAPek ez ditu bere gain hartuko bestelako gastuak, hala nola ordezkapenak, joan-etorriak, materiala etab.

10.- Ikasleei buruzko informazioa eta datuen babesia.

Euskara ikastaroa kudeatu ahal izateko ezinbestekoa da ikasleei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta dagokion erakundeari lagatzea. Horrela, IVAPek lanorduetan nahiz lanorduz kanpo ari diren ikasleen asistentzia eta ebaluazio datuak jasoko ditu eta erakunde bakoitzari bere ikasleei dagozkienak jakinaraziko dizkio.

Jasoko diren datu pertsonalen tratamendua honako arau hauek xedatutakoaren arabera egingo da: Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa; datu pertsonalak gordetzen dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien Araudia, ekainaren 11ko 994/1999 Errege-dekretuaren bidez onartutakoa eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/ 679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu hauen zirkulazio askeari dagokienez, pertsona fisikoen babesari buruzkoa dena.

Deialdi honetara biltzen diren langileek onartu egiten dute bertan ezarritako helburuak betetzeko jasoko diren datu pertsonalen tratamendua. Horrela, onartu egiten dute IVAPek datuak jasotzea eta dagozkien erakundeei jakinaraztea euren asistentziari eta ebaluazioari dagokienez. Onartu egiten dute, era berean, datu-lagapenak egitea Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, normalkuntza planaren betetze maila ebaluatzeko txostenak egin ditzan (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 6. art.). Onartu egiten dute, azkenik, datu-lagapenak egitea Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundeari –HABE– (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera).

Ikasleei buruzko datu pertsonalak Datuak Babesteko Agentzian erregistratutako “Funtzionarioak euskalduntzea” izeneko fitxategian egongo dira. Ikasleek fitxategiko datuetara sartzeko, datuok aldatzeko edota deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, IVAPeko Idazkaritza Nagusira jo dezakete: Donostia-San Sebastián kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

IVAP - 2019.05.13